

**2007ko OTSAILAREN 8an LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN
OSPATUTAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA**

2007ko otsailaren 8an, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, gaueko 20.30 orduetan, Jon Urkaregi Garmendia alkatearen lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ALKATEA: Jon Urkaregi Garmendia

ZINEGOTZIAK: Adela Mendiola Gomez
Jon Tejeria Otermin
Iñigo Aginalde Lertxundi
Karlos Irazu Muñoa

IDAZKARIA: M^a Eugenia Muñoa Irureta

...//...

Alkate-lehendakari jaunak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

1. Ondoren adierazten diren Udalbatzarreko aktak onestu, hala badagokio:
 - 2007ko urtarrilaren 11an ospatutako ohiko udalbatzarra.
2. Alkatetza ebazpenen berri ematea.
3. 2006-2007 ikasturterako euskara ikastaroak egiteko dirulaguntzak esleitzea, hala badagokio.
4. Udal biztanleen erroldaren eguneraketa 2007 urteko urtarrilaren 1eko dataz.
5. Udal langileen ordainsarien igoera onartzea, hala badagokio
6. J. A. Z. E. jaunak egin duen eskaera aztertzea.
7. K. J. S. jaunak egin duen eskaera aztertzea.
8. Tolosaldeko Mankomunitateari egin beharreko 2007ko 1go ekarpena onartzea, hala badagokio.
9. Aiztondo Klasika Batzordeari egin beharreko ekarpena onartzea, hala badagokio.
10. Txolarre Irratiak buruturiko dirulaguntza eskaera aztertzea.
11. Hainbat dirulaguntzen berri ematea.
12. Fakturak eta ordainketak.
13. Beste batzuk.
14. Erregu, galderak eta mozioak.

.../...

Bilkura 20.45 orduak direnean hasi da.

LEHENENGO PUNTUA

ONDOREN AIPATZEN DIREN UDALBATZAREN AKTAK ONESTU, HALA BADAGAKIO.

▣ 2007 urteko urtarrilaren 11ko Udalbatzarraren Ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren beratartuek aho batez onestu dute.

BIGARREN PUNTUA

ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Alkate jaunak azkeneko Udalbatzarretik emandako ebazpenen berri ematen du:

- 01/2007 Alkatetza Ebazpena, urtarrilaren 16koa, Construcciones Trati, S.L baltzuari Larraulgo kultur zentru balioanitza exekutatzeko jarritako bermea itzultzea ebazten duna, obraren likidaziotik ateratako kopuruaren gainean %4-ko bermea jarri duela ikusi eta gero.
- 02/2007 Alkatetza Ebazpena, urtarrilaren 16koa, urbeltz auzoko bizilagunei 3. hiru hilabeteko uraren azpiegitura kanona eta zaborraren zerga itzultzea ebazten duena.
- 03/2007 Alkatetza Ebazpena, urtarrilaren 18koa, 4. hiru hilabeteari dagokion ura eta zaborraren tasen erroldak onestea ebazten duena.
- 04/2007 Alkatetza Ebazpena, 2007/1 zbk. duen faktura zerrenda 49,60 eurokoa onartzea ebazten duena.
- 05/2007 Alkatetza Ebazpena, urtarrilaren 30ekoa, Construcciones Echaide, S.A. baltzuari Kultur Etxe inguruan egin diren urbanizazio lanengatik 3.118,91 eurotako faktura ordaintzea ebazten duena.
- 06/2007 Alkatetza Ebazpena, urtarrilaren 30ekoa, Eneko Ariceta San Sebastian jaunari Larraulgo AA.SS-etako 2.1 unitateko etxebizitza tasatuen erosle hautatu bezala behin erosketa formalizatzen duen eskritura publikoa aurkeztu ondoren Udalaren aurrean jarrita zuen 3.000 eurotako fidantza itzultzea, ebazten duena.
- 07/2007 Alkatetza Ebazpena, urtarrilaren 31koa, Antton Amonarriz kultur guneko segurtasun sistema instalatzeko Babesa Suzai, S.A baltzuari zerbitzu kontratua esleitzea, ebazten duena.
- 08/2007 Alkatetza Ebazpena, otsailaren 5ekoa, M^a Pilar Cortajarena Sorarrain andereari Larraulgo AA.SS-etako 2.1 unitateko etxebizitza tasatuen erosle hautatu bezala behin erosketa formalizatzen duen eskritura publikoa aurkeztu ondoren Udalaren aurrean jarrita zuen 3.000 eurotako fidantza itzultzea, ebazten duena.

Udalkideak jakinaren gainean gelditzen dira.

HIRUGARREN PUNTUA

2006-2007 IKASTURTERAKO EUSKARA IKASTAROAK EGITEKO DIRULAGUNTZAK ESLEITZEA, HALA BADAGOKIO.

Ikusirik Larraulgo Udalak 2006ko abenduaren 5ean ospatutako ohiko Udalbatzarrean 2006-2007 ikasturterako Larraulgo biztanleentzat euskara ikastaroak burutzeko dirulaguntzak arautzen dituzten oinarriak onartu zituela.

Ikusirik dagokion iragarkia GAO-ean 2006ko abenduaren 11ean argitaratu zela, 25 egun naturaletako epea irekiz, abenduaren 12tik urtarrilaren 6ra bitartean.

Ikusirik epe horren barruan lau eskaera aurkeztu zirela, onartutako 2, 3 eta 4 oinarriak betezen dituztelarik eta aurkeztu beharreko dokumentazioa ekarri dutela.

Ikusirik ondorengo eskaerak egon direla

IZEN ABIZENAK	JARDUERA	AURREKONTUA
F. J. A. O.	EUSKARA	297
M. A. R.	EUSKARA	297
A. C. N. L.	EUSKARA	297
M. P. P. S.	ESUKARA	297

Ikusirik 2007 urteko otsailaren 8an idazkariak dirulaguntzak arautzen dituzten 5. oinarriari jarraiki ondorengo proposamena burutu duela:

IZEN ABIZENAK	AURREKONTUA	DIRULATUNTZA
F. J. A. O.	297	149
M. A. R.	297	149
A. C. N. L.	297	149
M. P. P. S.	297	149

Gaia azterturik, bertaratuek, aho batez

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- 2006-2007 ikasturterako Larraulgo herritarrei Euskara ikastaroak burutzeko dirulaguntzak Idazkari andreak 2007 urteko otsairen 8an eginiko proposamenaren arabera esleitzea.

BIGARRENA.- Dirulaguntzak arautzen dituzten 8. oinarriak dioenari jarraiki onartutako dirulaguntzaren % 50-a ordaintzea. Beste %50-a dirulaguntzaren xede diren ekintza egitasmo edo helburuak bete direal justifikatzen denean, horretarako gastua burutu izanaren faktura eta agiriak aurkeztu beharko dira.

HIRUGARREA.- 2007 urteko udal aurrekontuan kreditu nahikoa aurreikustea.

LAUGARRENA.- Interesdunei akordio honen berri ematea.

LAUGARREN PUNTUA

UDAL BIZTANLEEN ERROLDAREN EGUNERAKETA 2007 URTEKO URTARRILAREN 1EKO DATAZ.

Ikusirik Larraulgo Biztanleen Udal Erroldaren eguneraketa lanak amaitu ondoren 2007 urteko urtarrilaren 1eko erreferentzi datan 2006 urteko urtarrilaren 1eko biztanleen kopuruarekiko 37 alta eta 5 baja egon direla, modu honetan 209 biztanle daudelarik (114 gizonezko eta 95 emakumezko).

Gaia azterturik bertaratuek aho batez ondorengoa,

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- 2007ko urtarrilaren 1eko Larraulgo Erroldako datuak onartzea.

BIGARRENA.- Toki Entitateetako Biztanlego eta Lurralde Mugaketarako Erreglamenduko 82.1 artikuluan xedatutakoa beteaz, dagokion iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta espedientea jendeaurrean ipini hamabost egunetako epean.

BOSGARREN PUNTOA

UDAL LANGILEEN ORDAINSARIEN IGOERA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO

Ikusirik 2005-2007 epealdirako Eudel eta Sindikatuek Udalhitz hitzarmena sinatu zutela Euskal Autonomi Erkidegoko Herri Erakundeen Lan Harremanen Markoa ezartzeko xedea duena

Ikusirik idazkari andreak adierazi duela Udalhitz hitzarmenak 2007 urterako lengileen ordainsairen %4-ko igoera proposatzen duela.

Gaia azterturik, bertaratuek aho batez

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Udalhitz hitzaremenean proposatzen denari jarraiki 2007 urterako udal lengileen ordainsariak % 4-an igotzea.

SEIGARREN PUNTOA

J. A. Z. E. JAUNAK EGIN DUEN ESKAERA AZTERTZEA.

Ikusirik J. A. Z. E. jaunak aurkeztu duen idatzia non XX-XXXX-X, ibilgailuak 25 urte baino gehiago dituela eta 2007 urterako trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zergaren hobaria eskatzen duen.

Ikusirik Idazkari andreak adierazi duela 2007 urterako udal zergak arautzen dituzten ordenantzetan ibilgailu historikoez trakzio mekanikodun ibilgailuen zergan %50-eko hobaria aurreikusten dela.

Era berean idazkari andreak adierazi du udal zerga eta tasen gaineko hobariak aurkezteko epe bat ireki zela abenduaren 1etik 31-a bitartean eta eskaera hau otsailaren 1ekoa dela.

Bertaratuek, gaia azterturik

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- J. A. Z. E. jaunak aurkeztutako eskaera onartzea eta XX-XXXX-X ibilgailuaren gainean 2007 urterako trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zergaren %50-eko hobaria onartzea.

BIGARRENA.- J. A. Z. E. jaunari gogoraraztea urtero udal zerga eta tasen gaineko hobariak eskatzeko dagokion epea zabaltzen dela eta ondorioz eskaerak epe horren barruan aurkeztu beharra dagoela.

ZAZPIGARREN PUNTOA

K. J. S. JAUNAK EGIN DUEN ESKAERA AZTERTZEA

Ikusirik K. J. S. jaunak 2007ko urtarrilaren 25ean aurkezturiko idatzia non XXX zenbaki katastrala duen partzelan 20 m² gehi 10 m²-ko portxe bat egiteko eskaera egiten duen.

Ikusirik Udaleko Aholkulari Teknikaria den E. E. B. Arkitektuak 2007 urteko otsailaren 7an luzaturiko txostena non ondorengoa adierazten duen:

K. J. S. jaunak, Larraulgo I Poligonoko lursailean 20m²-ko borda eta 10 m²-ko protxe bat egiteko asmoa azaltzen du. Honetarako lekuaren ortofotoa, bordako oina eta altxaerak azaltzen duen oinarritzko irudi batzuk eta aurrekontua aurkezten du obra baimena eskuratzeko. Dokumentazioa azterturik eta eskaerari erantzuten, ZERA ADIERAZTEN DUT:

380 lursaila Larraulgo lur ez hiritargarriaren barruan dago, beraz hirigintza-erregimen hiritargarriezina erabiliko degu.

Arau Subsidiarioen 72. artikulua esaten duen bezala, nekazal erabilera ez profesionalizatuentzat gehienez egin daitekeen bordak 20m²-ko azalera eraikigarria izango du, beti ere borda honi loturiko lursailak 2.500 m² baino gehiago baditu.

Artículo 72.- Usos agrarios no profesionalizados

Reciben la denominación de usos agrarios no profesionalizados aquellas explotaciones agrarias que no reúnen los requisitos de viabilidad y autonomía productivas exigidos para ser consideradas como usos de explotación agraria común. Deberán cumplir las siguientes exigencias:

- a) Su implantación no exigirá la emisión del informe de la Diputación Foral de Gipuzkoa.*
- b) Parcela mínima. La parcela o huerta labrada y trabajada de forma permanente que contenga una txabola tendrá una superficie mínima de 2.500 m².*
- c) Condiciones de edificación: se autoriza la construcción de una txabola por parcela destinada a guarda de aperos.
Asimismo se permite la construcción de cubriciones para protección del ganado, siempre que sean abiertas por sus laterales.*
- d) Superficie máxima construida: 20 m² para txabolas destinadas a la guarda de aperos*
- e) Condiciones de la licencia. La licencia municipal se concederá siempre en precario. En caso de que un mismo titular trabajara dos o más parcelas situadas en el mismo entorno, solamente se autorizará la construcción de una txabola o caseta.*

47. artikulua eraikinen ezaugarrietaz ari da. Bertan, teilatuaren maila gehienez %35koa izan behar dela asaten du.

Kanpo itxurari buruzko 48. artikulua berriz honela dio:

Artículo 48.- Condiciones de tratamiento exterior de las edificaciones.

-. Con carácter general se evitará la utilización de materiales cuyo color, textura y formas de acabado difieran ostensiblemente de los utilizados en las construcciones rurales tradicionales de la zona.

-. Como material de fachada se utilizará el revoco pintado y la piedra, prohibiéndose expresamente las terminaciones de bloque de hormigón y visto y de ladrillo caravista, aunque la utilización de este último material se admitirá siempre que no supere el 25% de la superficie de cada fachada.

-. Las intervenciones de nueva edificación conllevarán la adecuación ambiental de las edificaciones ubicadas en la misma parcela y propiedad.

Dokumentazioan azaltzen diren materialen eta bordaren kanpo itxura egokiak dira.

Beraz, aurrekoa ikusirik eta lursailak 2.500 m² baino gehiago baditu, 20 m²-tako azalera eraikigarria duen borda bat egiteko aukera dago.

Borda honek gehienez %35 maila duen teilatua izango du eta bordaren kanpokaldeko itxura harrizkoa izango da.

Eskaera hontako aurkeztu den dokumentazioa egokia izanik, eta obran araudia betetzeko esandakoak egiten badira, egokia izango da obra baimena ematea.

Dena den, obra amaitzean, bordaren kanpo itxura azaltzen duen argazki bat ekarri beharko da udaletxera.

Ikusirik borda eraikiko den lursailak 13.080 m² dituela.

Bertaratuak, gaia eztabaidatu ondoren

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- K. J. S. jaunari bere jabetzako 1 poligonoko XXX lursailean borda bat egiteko obra baimena ematea, Udaleko Aholkulari Teknikaria den E. E. B. Arkitektuaren txotenean aipatutakoaren arabera.

BIGARRENA.- Indarrean dauden ordenatza fiskalen arabera dagokion tasa kitzatzea.

HIRUGARRENA.- Interesdunari akordio honen berri ematea.

ZORTZIGARREN PUNTOA

TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEARI EGIN BEHARREKO 2007KO 1GO EKARPENA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Ikusirik Tolosaldeko Mankomunitateak 2007ko urtarrilaren 25ean eskainitako zerbitzuengatik aurkeztu duen 26/2007 faktura 3.016,99 eurotako kopurua duena eta 2007. urteko % 50ri dagokiona.

Gaia azterturik, bertaratuek

ERBAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Tolosaldeko mankomunitateari dagokion 2007 urteko 1go ekarpena 3.016,99 eurotako kopura duena onartzea.

BIGARRENA.- 2007 urteko aurrekontuan partida nahikoa aurreikustea.

BEDERATZIGARREN PUNTOA

AIZTONDO KLASIKA BATZORDEARI EGIN BEHARREKO EKARPENA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Ikusirik 2007ko urtarrilaren 29an Aiztondo Klasikako Batzordeak IV. Aiztondo Klasikoaren aurrekontua bidali duela 767,98 eurotako dena.

Gaia azterturik, aho batez

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Aiztondo Klasikako Batzordeak aurkeztu duen aurrekontua onartzea eta 767,98 eurotako ekarpena burutzea.

BIGARRENA.- 2007 urteko aurrekontuan partida nahikoa aurreikustea.

HAMARGARREN PUNTOA

TXOLARRE IRRATIAK BURUTURIKO DIRULAGUNTZA ESKAERA AZTERTZEA

Idazkari andreak jakinarazi du Txolarre Irratiak 2007 ekitaldirako dirulaguntza eskaera aurkeztu duela, 177 eurotako laguntza eskatzen zaio Larraulgo Udaletxeari, euro bat biztanleko. Aldi berean urteko memoria aurkeztu dute.

Gaia aztertutik berataratuek aho batez ondorengoa,

ERABAKITZEN DUTE

LEHENENA.- 2007 ekitaldirako Txolarre Irratiari 177 eurotako dirulaguntza esleitzea.

BIGARRENA.- 2007 urteko aurrekontuan partida nahikoa aurreikustea

HAMAIKAGARREN PUNTOA **HAINBAT DIRULAGUNTZEN BERRI EMATEA**

Idazkari andreak ondorengo dirulaguntzen berri eman du:

- Gipuzkoako Foru Aldundiko Giza Eskubideak, Enplegua eta Gizarteratze Sailak, enplegua eta gizarteratze arloan inbertsioetarako esleitzen dituen dirulaguntzak.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikarako Departamentuaren eskumen eta esparruko inbertsioetarako dirulaguntzak.

Adela Mandiola zinegotzi andreak adierazi duenez Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitatetik egin daiteke dirulaguntza eskaera, gizarte zerbitzuak bertatik eskaintzen bait dira.

Bertaratuek gaia aztertu ondoren, dirulaguntza eskaera Aiztondo zerbitzuen Mankomunitatetik bideratzea erabakitzen dute.

- Gipuzkoako Foru Aldundiko Giza Eskubideak, Enplegua eta Gizarteratze sailak, haur, nerabe eta gazteen arloan inbertsioetarako eta Gipuzkoako Udalek sustatutako haur eta gazteentzako jarduera, plan, programa eta zerbitzuak aurrera eramateko dirulaguntzak

Bertaratuak berri eman da gelditu dira.

HAMABIGARREN PUNTOA **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK.**

Alkate jaunak ondoren adierazten diren fakturak eta ordainketak aurkezten ditu bere onespenerako:

- UROLA TUBOS Y ACCESORIOS	492,91 €
- AKETEGI	48,10 €
- VODAFONE	87,01 €
- J.L. VELEZ	665,59 €
- ARTXIBATZAILE (2. SEIHILABETE)	179,76 €
- COMASA	120,04 €
- KIROLZER	136,25 €
- IBERDROLA	107,74 €
- MONTTE	1127,87 €
- GOR SUMINISTROS QUIMICOS	76,01 €
- DISTRIBUCIONES LOPETEGI, S.L.	483,66 €
- FERRETERIA BARBE, S.L.	154,65 €
- GSM	1138,03 €
- ARGITU	297,31 €
- IZFE, S.A.	1431,93 €
- TELEFONICA	29,07 €
- TELEFONICA	89,71 €
- CASA ARREGI	64,20 €
- EUSKALTEL	67,77 €
- GRAFICAS ORIA	127,60 €
- KOLDO JAUREGI	551,00 €
- ARTELAZ	399,04 €

Udalbatzarrak **ahobatez** hurrengoa,

ERABAKITZEN DU

LEHENGOA.- Aipaturiko fakturak, denera **7.875,25 Euro**tako kopurua osatzen dutenak onartzea.

HAMAIRUGARREN PUNTOA **BESTE BATZUK.**

Udal Batzarrak presazko eta premiazko arrazoiak direla medio aho batez gai zerrendatik at dauden hurrengo gaiak eztabaidatzea erabakitzen du.

- **Udaleko Ondasunak kalteetatik babesteko aseguruaren berri ematea.**

Ikusirik Alkate-Lehendakari jaunak adierazi duela Udaleko ondasunak kalteetatik babesteko aseguruia amaitu egiten zela eta Roberto Lizaso Aseguruak, S.L korreduriak eginiko proposamena FIATC seguros aseguroetxearekin poliza kontratatzeko, urteko prima 1.757,68 eurotako dena onartu dela.

Era berean Idazkari andreak Roberto Lizaso Aseguruak, S.L korreduriak proposatu duen defentsarako aseguruaren berri eman du, hau da, udal ondasunetan sortzen diren kalteak direla eta aseguroetxe eta partikularrei erreklamazioak egiteko defentsa juridikorako aseguruia, urteko prima 401,94 eurotako delarik.

Gai hau mahai gainean utzi da eztabaida sakonago bat egiteko asmoz..

- **Tolomendi, Tolosaldeko Landa Garapen Elkarteak, 2007ko Otsailaren 1ean harturiko Ebazpenaren berri matea.**

Idazkari andreak 2007ko otsailaren 1eko Landa Garapeneko Elkartearen ebazpenaren berri eman du, zeintean Larralgo Udalak S. baserri inguruan eskoilera bat egiteko, (14.955,67 €tako aurrekontua duena) eskatutako dirulaguntza emateko konpromezua hartu dela adierazten den, 2008ko diruen bidez, dirulaguntzaren % zehatza 2007ko udazkenean finkatua izango delarik.

Alkate- Lehendakari jaunak adierazi du hori ez zela hitzegindakoa eta Tololmediko kideekin gauzak argitzekotan gelditu da.

- **Idazkari andreak ondorengo gaien berri eman du.**

- Hitzak bidali duen proposamenaren berri eman da.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Giza Eskubideak, enplegurako eta gizarteratzeko departamentuak Haurrak, Nerabeak eta Gazteak. Eskubidedun hiritarrak, gaiari buruzko martxoaren 6 eta 7an egingo den biltzarrerako gonbidapena luzatu du.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Giza Eskubideak, enplegurako eta gizarteratzeko departamentuak Genero indarkeriaren inguruko III. Jardunaldietako martxoaren 8an ospatuko direnak, gonbidapena luzatu duela.
- IVAP-ek, Demokrazia, Hiritartasuna eta Lurraldetasuna izeneko nazioarteko biltzarrerako gonbidapena luzatu duela.
- Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak, Klima aldaketak inguruan egingo dituen inpaktu eta kostu ekonomikoak nola balioztatu eta nola aurre hartu aurkezpenerako gonbidapena luzatu duela.

Bertaratuak berri eman da gelditu dira.

HAMAL AUGARREN PUNTOA
ERREGU, GALDERA ETA MOZIOAK

Ez dira aurkeztu.

Beste gairik ez dagoenez, gaueko 22.40 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.

ALKATEA

Jon Urkaregi

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA

M^a Eugenia Muñoa Irureta